NEREA

Administrazioa

Erakunde publiko bat gara, euskalduna, eta euskara da gure erronka; baina enpresen beharren mende gaude, eta euren beharretara moldatu behar gara.

53 URTE, BILBO

LANA ZAMUDION

IBILBIDE PROFESIONALA

- Unibertsitate ikasketak ditu, eta lidergoan eta berrikuntzan prestatuta dago.
- Enpresa munduan ibilbide profesionala egindakoa da.
- Erakunde publikoetan kargu ezberdinak bete ditu eta politika arloa ondo ezagutzen du.
- Euskal hiztuna da, baina ez du euskaraz lan egiten eta gaztelaniaz bizi da batez ere egunerokoan.

KEZKAK

- Hemengo enpresak arrakastaz nazioartekotzea garrantzitsua dela uste du.
- Enpresek euskara bultzatzearen arloan izan dezaketen iritziak kezkatzen du. Galdetu egin behar zaiela uste du.

NARRATIBAK

- **Itzulpen automatikoak** bidea erraztuko du.
- Gero eta gehiago entzuten da euskara. **Gazteak euskaldunduta** datoz unibertsitatetik eta etorkizunean ezagutza bermatuta dago.
- **Jende oso ona** dago euskaraz lan egiteko prest dagoena.
- Belaunaldi berriak eleaniztasunean hezi behar ditugu baina euskararen garrantzia transmitituta, **identitatea**rekin lotuta.
- **Etorkizunean gehiago** egingo da euskaraz.
- Euskara **barne harremanetarako** hizkuntza da, eta balio soziala dauka, baina ez dauka balio teknologikorik.
- **Enpresen interesaren araberakoa** izango da euskarak teknologia aurreratuetan izango duen aurrerapena.
- **Ez da ezagutzen** zein den euskararen egoera enpresetan eta zer interes daukaten euskara bultzatzeko; hori jakin ezean, ezin da askorik egin.
- Administrazioak **laguntzak emateko bide berriak** aztertu behar ditu: onura fiskalak, enpresen arteko esperientzien ezagutza trukea…
- **Euskal identitateak/kulturak** dituen balioak eta gaur egun enpresek eskatzen dituzten ezaugarriak bat datoz.
- Desberdin egiten gaituzten ezaugarriak gehiago ikusarazi behar ditugu, **besteengandik desberdin**tzeko.